



ALDEZ AURREKO KONTSULTA, PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGAREN ARAUTEGIAN ALDAKETAK EGITEKO PROIEKTUARI BURUZKOA.

Bat etorri maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren I. eranskinen 9. artikuluan xedatutakoarekin (29/2017 Foru Dekretua, maiatzaren 23koa, zeinaren bidez onetsi baitziren xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikako jarraibideak), eta herritarrek araugintzako xedapenak egiteko prozeduran izan behar duten parte hartzea hobetzeraren, alde aurreko kontsulta bat gauzatu da, goiburuan aipatzen den aurreproiektu/proiektua egiten hasi aurrekoa, jakitearren zer iritzi duten herritarrek eta egitekoa den arauak eragin ahal dien erakundeek, ordezkagarritasun handienekoek, honako hauei buruz:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- b) Onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- c) Arauaren helburuak,
- d) Aukera ordezkakoak, araugintzazkoak edo araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatu da, herritarrei eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegian aldaketak egitea ekarriko duen etorkizuneko xedapenen eragina jaso lezaketen erakundeei, ordezkagarritasuna dutenei, beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egokia baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, uztailearen 24ra arte, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.

AURREKARIAK	<p>Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duen Foru Araua. 56.bisartikulua.</p> <p>Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunean eragindako aldaketak, 12/2002 Lege maiatzaren 23koak onetsiak. 10/2017 Legea, abenduaren 28koa.</p>
--------------------	--



KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	Langile lekualdatuentzako araubide berezia. Atxikipenak eta konturako diru sarrerak Ekonomia Itunaren aldatetara egokitzea.
ONESTEKO BEHARRA ETA EGOKITASUNA	Beharrezkoa da, araudia aplikatu ahal izateko eta zerga sistemaren koherentziari eutsi ahal izateko.
HELBURUAK	Araudia garatzea eta egokitzea.
EGON DAITEZKEEN BESTELAKO AUKERAK (ARAUGINTZAZKOAK ETA ARAUGINTZAZ BESTEKOAK)	Aukera ezberdinak daude langile lekualdatuen kasuan, eta honako hau jo da egokientzat